

ARRASATEKO EH BILDUK ESKATZEN DIO UDAL GOBERNUARI PLANIFIKATURIK IZATEA JUBILATZEN DIREN UDAL LANGILEEN ORDEZKAPENA

Azken Pertsonal Batzordean Arrasateko EH BILDUK Udal Gobernuari eskatu zion plan bat egiteko udal langileen jubilazioak garaiz aurreikusi eta ordezkatzeko prozesuak behar diren moduan egiteko. Eskaera dator jakinik bai euskara sailean bai pertsonal sailean arloburuak jubilatuko zirelako alternatibarik gabe eta hori ez da ona udal funtzionamenduarentzat ezagutza galtzen delako, hainbat egitasmo eteten direlako eta abar. Jakinik gainera udal arlo zehatz batzuetan urte gutxian langile asko jubilatuko direla aldi berean, esaterako kontuhartzailentzan edota udaltzaingoan, orain hasi behar da kudeaketa onaren bidetik langileen ordezkatzeko planifikatzen eta aurreikusten urteotan metatutako jakintza eta egiteko modua gal ez dadin.